



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-19.09.05

2019eko irailaren 16ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE OHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2019eko irailaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Juan LOBATO AMADO Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

...//...
O-19/09-01



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-19.09.06

...//...

LEHENENGO PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Idazkariak udalkideen esku jarri du Alkateak emandako Ebazpenen zerrenda eta adierazi ebazpenak osorik ikus daitezkeela, interesa izanez gero. Zerrendan R-19/149tik R-19/282ra bitarteko ebazpenak sartu dira.

Asier Etxarri zinegotzi jaunak galdetu du ea noizero ekartzen diren Osoko Bilkuretara Alkatearen Ebazpenak eta idazkariak erantzun dio Ohiko saioetan ekartzen direla, hau da, bi hilabetetik behin.

Ez da beste galderarik edo oharrik izan eta hurrengo gaiari heldu zaio.

BIGARREN PUNTUA: **2019/07/01 eta 2019/07/24 egunetako Osoko Bilkuren aktak onartzea, hala badagokio.**

Jon Enrique alkate jaunak gogorarazi du emailaz bidali zitzaizela udalkideei aipatu bi aktak, bilkuraren aurretik irakurtzeko aukera izan zezaten.

Eztabaida zabaldu baina ez da aldaketarik edo zuzenketarik eskatu. Bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu dira biak.

Ondoren, gai zerrendarekin aurrera jarraitu da.

HIRUGARREN PUNTUA: **MUXIKA EGURASTOKIKO OBRAK BURUTZEKO KREDITU ALDAKETA ONESTEIA, HALA BADAGOKIO.**

Alkateak adierazi du Muxika Egurastokiko urbanizazioa hobetzeko proiektuan aurreikusita ez zegoen kontzeptu sartu beharra sortu dela, alegia, barandilla.

Bestalde, ezusteko dirulaguntza jasoko denez Eusko Jaurlaritzatik, kopuru bat aurten (19.921,72 €) eta bestea (32.503,87 €) datorren urtean, inbertsio berria dirulaguntza horren bitartez finantzatzea proposatzen da.

...//...
O-19/09-02



Ormaiztegi Udalak

Udal1-batzarre
O-19.09.07

...//...

Idazkariak kreditu aldaketaren espedientea udalkideen esku jarri du eta azaldu Udalbatza Osokoak hasierako onespena eman diezaiokeela baina behin betiko onspena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko erakustaldi publikoan egon ondoren izango lukeela, alegaziorik aurkeztuko ez balitz edo, aurkeztuta ere, udal txosten teknikoek aldeko irizpena emango balute.

Udalkideen aldetik ez da galderarik edo eztabaidarik izan eta bozkatzeari ekin zaio. 2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren 1. Kreditu Aldaketari hasierako onspena eman zaio ahobatez.

LAUGARREN PUNTUA: **ERREGUAK ETA GALDERAK**

Alkateak hitza eman die udalkideei, baina ez da ekarpenik izan.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:15 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko irailaren 18an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begona Antxustegi Bengoetxea

...//...
O-19/09-03